**AKTEA/16**

# BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA
**(2024-05-14)**

| | |
|---|---|
| **Batzarraren izaera:** | Ohikoa |
| **Deialdia** | 1. deialdia |
| **Data:** | 2024-05-14 (Asteartea) |
| **Lekua:** | Irakaskintza kalea 14-16<br>(Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela) |
| **Hasiera-ordua:** | 08:32 |
| **Amaiera-ordua:** | 08:42 |
| **Alkate-Presidentea:** | NEMEH SHOMALY NADIA |
| **Batzordekideak:** | URIARTE ANASAGASTI VICTOR<br>ORTUZAR BUTRON XABIER<br>CARUEZO UGALDE MAITE |
| **Bertaratu ez direnak:** | ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA<br>GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE |
| **Idazkaria:** | LEJARRAGA URIARTE JURDANA |

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

**Aztergaiak**

1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2024-05-07 TGB (15)

2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik daukaten adieraztea.

3.- Arostegi kalea 4 eraikina birgaitzeko obra lizentzia eskaria onartzea.

4.- Bizkaiko Jaurerria kalea 12 eraikineko atzeko fatxada birgaitzeko obra lizentzia eskaria onartzea.

5.- Eupeme Deuna kalea 7 eraikineko estalkia birgaitzeko obra lizentzia eskaria onartzea.

6.- Bermeoko Merkataritza establezimenduetan euskaraz ipinitako errotuluak finantzatzeko 2024. urterako dirulaguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea.

7.- Gaztelugatxe alkarteari 2024. urteko dirulaguntza izenduna bideratzeko hitzarmena sinatzea onartzea.

8.- Alkatetza dekretuen berri emotea.

9.- Eskari eta itaunak.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

**1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2024-05-07 TGB (15)**

Bertaratutako batzarkideek 2024ko maiatzaren 7ko 15/2024 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

**2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.**

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik ez

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

daukatela adierazi dute.

## 3.- AROSTEGI KALEA 4 ERAIKINA BIRGAITZEKO OBRA LIZENTZIA ESKARIA ONARTZEA.

**Xedea**

Bermeoko Arostegi kaleko 4 zenbakian kokatutako eraikinaren birgaikuntz energetikorako, SATE sistema bitartez, obra lizentzia eskariaren ebazpena.

**Aurrekariak**

Lehenengoa.- 2023ko otsailaren 13an, 14.598.309-W NAN zenbakidunak, H95122826 IFZ zenbakidun Bermeoko Arostegi kaleko 4 zenbakian kokatutako eraikineko jabe elkartearen izenean, eraikinaren birgaitze energetikorako, SATE sistema bitartez, obra lizentzia eskaria aurkeztu zuen.

Bigarrena.- 2023ko abuztuaren 28an 14.598.309-W NAN zenbakidunak, H95122826 IFZ zenbakidun Bermeoko Arostegi kaleko 4 zenbakian kokatutako eraikineko jabe elkartearen izenean, lizentziaren deuseztapen eskaria aurkeztu zuen, proiektuaren aldakuntza dela eta.

Hirugarrena- 2023ko abenduaren 12an 14.598.309-W NAN zenbakidunak, H95122826 IFZ zenbakidun Bermeoko Arostegi kaleko 4 zenbakian kokatutako eraikineko jabe elkartearen izenean, auditoria energetikoaren txostena aurkeztu zuen.

Laugarrena.- 2024kko otsailaren 15ean udal arkitektoak txostena egin zuen, bertan dokumentazio osagarria aurkeztu behar zela adierazi zuen.

Bosgarrena.- 2024ko martxoaren 25ean obra lizentzia eskatzaileak dokumentazio osagarria aurkeztu zuen.

Seigarrena.- 2024ko apirilaren 9an udal arkitektoak txostena egin zuen.

Zapigarrena.- 2024ko apirilaren 25ean an eskatutako fidantzak gordailatu ziren.

Zortzigarrena.- 2024ko apirilaren 29an Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak txostena egin zuen.

Bederatzigarrena.- 2024ko maiatzaren 3an Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak erabaki proposamena egin zuen eta hura organo eskudunari igorri zion.

**Argudioak**

Lehenengoa.- Bai txosten teknikoan bai txosten juridikoan azaltzen den bezala, 14.598.309-W NAN zenbakidunak, H95122826 IFZ zenbakidun Bermeoko Arostegi kaleko 4 zenbakian kokatutako eraikineko jabe elkartearen izenean aurkeztutako eskaria bat dator hirigintza araudiarekin.

Bestalde, Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek eta Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 21871978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazio indarrean dagoen araudiarekin bat dator.

Bigarrena: Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 209.2. artikulua eta Toki administrazioen oinarriak arautzen duen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikula kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da, baina eskumen 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 14.598.309-W NAN zenbakidunak, H95122826 IFZ zenbakidun Bermeoko Arostegi kaleko 4 zenbakian kokatutako eraikineko jabe elkartearen izenean, eskatutako obra lizentzia ematea eraikinaren birgaitzerako aurkeztutako proiektuaren arabera.

BIGARRENA: Lizentziaren eraginkortasuna baldintza honek betetzera baldintzatuko da:

- 112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Urigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza ezarri da udalean.
- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Lanak hasi aurretik haien zuinketa egiazta dezaten eskatu beharko zaie, Udal Zerbitzu Teknikoei.
- Arostegi kaleko fatxada berriztatzeko ezin izango da aldamua jarri Arostegi kaleko 3an kokatutako aldamua kentzen ez den heinean edota aldamua jarri nahiko balitz bi aldamuen artean 3,00 metroko distantzia geratu beharko da. Edozein kasutan, aldamuaren kokapena udaltzainekin adostu beharko da.
- Eraikinaren fatxadaren konposizio estetikoa mantendu beharko da, hala, 62. artikuluak zehazten duen bezala, ez dira onartuko fatxadaren jatorrizko elementuak estaltzen dituzten tratamendu edo gainestaldurak, hala, iturri, armarri, moldura, markesina, zutoin, inskripzio, estuko eta eraikinak jatorriz dituen ezaugarrien bestelako adierazpideak mantendu egin beharko dira. Beraz, SATE sistema jartzerakoan eraikinaren moldurak eta elementu estetikoak errespetatu beharko dira, dokumentazio osagarrian azaltzen den bezala.
- Fatxaden koloreak ez dira proiektuan definitzen, beraz, fatxadek kolore aldetik izango duten konposaketa erabakitzen denean, udalari jakinarazi beharko zaio oniritzia eman dezan.
- PVCzko zorrotenak eta kanaletak margoztu egin beharko dira.
- Arotzeriari dagokionez, egurrezko forratuak eta estalki hegalak ezin dira barnizatu, margoztu egin behar dira.
- Barandillak mantendu egin beharko dira eta eraberritzekotan, tratamendua eman ondoren kolore beltzarekin margotu beharko dira, eraikineko jatorrizko eraikuntzako ereduari jarraiki berriztatuko dira, jatorriz erabilitako material berdinez eta konposizio orduko diseinua aintzat hartuta.
- Ezin izango da altzairu herdoilgaitzezko materialik erabili.
- SATE sisteman erabilitako materialek, suteen aurkako araudiari jarraituz, B-s3_d0 ezaugarriak izan beharko dituzte gutxienez.
- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9 | Sinadurea eta datea: JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08 | DOCUMENTO: 20241022695 Datea: 15/05/2024 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

Baldintza honetaz gain, obra egiteko lizentzia eraginkorra izateko, lizentzia honeri erantsita doazen baldintza orokorrak bete beharko dira.

Ohartarazten da baimen hau ez dela eraginkorra izango, baldintza guztiak betetzen ez diren bitartean.

HIRUGARRENA: Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira udalean:

- Instalazioei eta egindako lanei jagoken obra amaiera ziurtagiria eta likidazinoa. Obra amaierako dokumentazinoa obra-zuzendari izan diran arkitektoak eta arkitekto teknikoak sinatuta aurkeztu beharko da, baita jagokon Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko dan, **lanek, indarrean dagoan araudiagazko daukien egokiera eta udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea**.

- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten dan dokumentazinoa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu dirala egiaztatzeko.

1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txosten bat aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu honen III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da, edo,azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraikiz.

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.

c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispen materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitorpena.

- Instalatzaileak emandako ziurtagiria, instalazioaren egokitasunarena. Industria ordezkaritzak abalatuta.

LAUGARRENA: Egin beharreko obrak lizentziaren bidez baimendutakoak baino ez dira izango. Baimendutako obretan egin nahi den aldaketa oro udalari jakinarazi beharko zaio, eta beste lizentzia bat eskatu beharko da. Obrak gainditzeak edo lizentzia baldintzak ez betetzeak obrak geldiaraztea eta dagozkien administrazio-zehapenak ezartzea ekarriko du.

BOSGARRENA: Lizentzia hau edo haren kopia kautotua obrak egiten diren lekuan egongo da, udal zerbitzu teknikoen eskura, eta zerbitzu horrei ikuskapenetarako eta egiaztapenetarako sarbidea eman beharko zaie, 2/2006 Legearen 217. eta 218. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

SEIGARRENA: Obraren aurrekontua 112.676,27€koa da. Obrak gehienez ere sei hilabeteko epean hasi beharko dira, lizentzia jakinarazi eta biharamunetik hasita, eta gehienez ere hiru hilabetez eten ahalko dira. Era berean, obrak egiteko epea sei hilabetekoa izango da, eta ohartarazten da adierazitako epeak obra hasi, jarraitu edo amaitu barik badaude, hurrenez hurren, udalak lizentzia iraungitzeko espedientea hasiko duela, interesdunak aipatutako obra egiteko luzapena eskatzen ez badu behintzat.

ZAZPIGARRENA: Obrak egiten diren bitartean, legez eskatu daitezkeen segurtasun neurri guztiak hartuko dira, obretatik hurbil dauden pertsonei kalterik ez egiteko.

ZORTZIGARRENA: Lizentziaren titularraren kontura izango dira bidean eta kasuan kasuko zerbitzu publikoetan sortu daitezkeen kalteen edo ukipenen ondorioz beharrezkoak diren birjartzeak, baldin eta obrak gauzatzearen ondorio badira.

BEDERATZIGARRENA: Obretako hesi, aldamio eta gainerako elementu

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

osagarriekin eremu publikoa okupatzen bada, dagokion eskaera aurkeztu beharko da udalean. Espedientean ikusi daitekeen moduan eskatzaileak 1.000 euroko fidantza gordailatu du aldamuak jartzeagatik.

HAMARGARRENA: Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza-eskubidea izan ezik eta hirugarrenaren eskubideari kalterik egin gabe, eta lizentziaren titularraren erantzukizun esklusibopean.

HAMAIKAGARRENA: Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

HAMABIGARRENA: Errenta Sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributuak likidatzeko.

HAMAHIRUGARRENA: Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsoak adieraziz.

**OBRA HANDIETAN BETE BEHARREKO BALDINTZA OROKORRAK**

Obra lizentzia emoten dauen erabagian agertzen diran baldintzakaz batera, beste baldintza honeek be, bete beharko dira:

1.- Dagokion arkitektoak idatzi eta jagokon alkargoak behar dan moduan oneretxia emonda aurkeztuko da proiektu teknikoa, eta, bai honi eta bai emoten dan lizentziari be zehatz lotuta egingo dira obrak.

2.- Berau kokaturik dagoan kaleko lerrokadura ofizialetara egokituko da eraikuntzea. Udal arkitektoak azalduko dau horreek lerrokadurak zeintzuk diran.

3.- Obra lizentziaren kopia kanpotik ikusteko moduko leku baten egon beharko da lanak egiten diren bitartean, esaterako kolarreko kristalean, atarian, auzoko iragarki taulan…

4.- Lizentzia eskatu eta lortu ostean, eskatzailea honako honeetara egongo da behartuta:

a) Urigintza arloko arauak eta ezarritako baldintzak oso-osorik betetera. Honeen baldintzen artean, funtsezkoa izango da, aplikagarria dan kasuetan, jarritako ildo ofizialetara zehatz atxikitzea obrea.

b) Ordenantza fiskalek ezarten dabezan zergak ordaintzera. Eskaria egiten dan momentutik onartzen da betebehar hori.

c) Lizentzia dala-eta, sortzen diran gastu guztiak ordaintzera, bardin, bide publikoan, harri-zoletan, pasealekuetan, espaloietan, urbideetan, faroletan eta abarrean be; orokorrean, jabari publikoko objektu narriagarrietan sortu leikezan kalteak ordaintzera.

d) Bai obrea burutzen dagoan bitartean, bai honen amaieran be, udal zerbitzuei ikuskapena egiteko aukerea emotera. Ezarritako baldintzak bete dirala frogatuko dabe honeek ikuskapenak.

e) Lanek irauten daben bitartean gertatu leikezan intzidentzia guztien erantzulea izatera.

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

f) Indarrean dagoan legediak esijitutako ganerako betebeharrak betetera.

g) Ur kontagailua ipini beharko da, obrea burutzen dan bitartean kontsumitzen dan ura neurtzeko. Zuinketa Aktea izenpetu aurretik jarri beharko da kontagailu hori, Ur Hornidurea eta Ur Zerbitzuaren Kudeaketarako Erregelamenduaren 78. artikuluak xedatutakoa betez. Kontagailua ipinteko beharrezkoa dan eskaria egin beharko da udaletxe honetan, erregelamendu horren 5. artikuluak xedatzen dauenaren arabera.

h) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2016ko uztailaren 19an argitaratu zan Bermeoko Udaleko Zaratei eta dardarei buruzko Udal Ordenantzea beteko da.

i) Hormigoi kamioiak ezin izango dira garbitu obran bertan, kamioiak garbitzean sortzen dan zementuzko karesnedun ura kainu-zuloetara joaten dalako eta kainu-zuloak itxi egiten diralako.

j) Udalak obrea hartu orduko Udal Zerbitzuek kainu-zuloak ikuskatu egingo dabez, eta itxita egon ezkero, esleipendunak garbitu egin beharko dauz, beti be udalak obrea hartu baino lehenago.

k) Zuinketa aktan kalearen egoerea zehaztuko da (galtzada-harriak eta espaloia), beharrezkoa bada, bizigarritasuna emon baino lehen konpondu ahal izateko.

5.- Horretarako legez baimenduta dagoan pertsona baten zuzendaritza fakultatibopean burutuko dira obrak; zuzendari fakultatibo horrek obran jarduteari izten badeutso, hiru egunen barruan eta jagokon alkargo ofizialak onetsitako ofizio bidez, obren sekzinoari emongo deutso horren barri. Jabeak, orduan, zuzendari fakultatibo barria izendatuko dau eta sekzinoari idatziz jakinarazo enkargu-orri egokia eta oneretxia emondakoan. Obrearen zuzendari fakultatiboak uko egin eta hiru egun igaro eta gero, izapide hori oraindino bete ez badau, Obra Sekzinoak lanen jarraipena etengo dau formalidade hori bete arte.

6.- Obreak irauten dauen bitartean proiektuan aldaketarik sartzea beharrezkoa bada, aurretik obra printzipalarentzat egin dan moduan, jagokon baimena eskatuko dau. Proiektua aurkeztu zanean eskatu bada edo egindako kitapenarena baino diru-kopuru handiagoa izateko arrazoirik eragiten ez bada, ez da sortuko eskubiderik. Holan izan ezean, diferentzia bakarrik ordainduko da.

7.- Eskatzaileak udaleko funtzionarioen esku itziko dauz planoen aleak onartuta eta zigilua emonda.

8.- Berehala erabiliko ez diran hutsune guztiak itxi egin beharko dira. Itxierea itxurosoa izango da eta ez da onartuko barrualdea ikusteko modurik izatea, ezta leundu eta pintatu bako trenkadarik, oholtzarik edo antzeko materialik be.

9.- Hasitako obrak ezin izango dira itzi amaitu barik. Hori gertatzen bada, udalak beharrezkoak diran xedapenak aginduko dauz. Lanak amaitzea agindu ahal izango dau, orubearen eta eraikinaren kargura.

10.-Obrak amaitu eta gero, jabeak jakinaren ganean ipiniko dau udala hamabost eguneko epe barruan. Jakinarazpen honegaz batera, obrea, onartutako proiektuaren arabera eginda dagoala frogatuko dauen obrako zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria aurkeztu beharko dau.

11.- Etxebizitzak okupatu aurretik, Alkatetzeari eskatuko jako bizigarritasun-zedulea. Udal aginteak ez dau baimenduko altzariak etxe-aldatzerik, ezta establezimendua irekiterik be, aurreko esan-multzoan ezarri dan moduan, emondako eraikuntza-lizentziaren baldintzetara lotuta egin dirala obrak egiaztatzen ez bada.

Era berean, solairu bakotxari ur-hornidurea mozten ez jakon arte ez jako emongo lizentziarik. Geroko erabiltzaileek formalizatuko dabe udaletxeko bulegoetan ur zerbitzuan abonadua izateko inskripzinoa. Kontratisteak izango dau solairu bakotxean ur-hodia ebagiteko baldintzea ez betetearen erantzukizuna.

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

12.- Obra lizentzia, kasu honeetan iraungiko da, ordaindutakoa itzultzeko eskubide barik:
- Udalak ezarritako epe barruan obrak hasi ez diranean.
- Obrak hasi eta gero, sei hilebetetan etenda geratu diranean.
- Horretarako ezarri dan epe zehatzean, edo, egon leitekeen luzapenean obrak amaitu ez diranean.

Epeak amaitu aurretik, arrazoitutako geldiarazpena edo berandutzea jakinarazo ezkero udalari, edo ezinbestekoagaitik izan dala frogatu ezkero, ez da kontuan hartuko epemugarik.

13.- Jabego eskubidea kenduta eta hirugarren pertsonen eskubideak gordeta emon dala baimena ulertuko da, eta onuradunak ezin izango dau erabili bere jardunean izandako erantzukizun zibila edo penala baztertzeko zein gitxitzeko.

14.- Lizentzia honetan aurreikusten ez dan guztirako, herriko arau subsidiarioek eta urigintzako ordenantzek xedatutakora egongo gara.

15.- Euskerearen Normalizazinorako Udal Ordenantzeak dinoana bete beharko da, era honetara: Obrearen seinaleak eta moeta guztietako oharrak, segurtasun arauen panelak… euskeraz idatzita egongo dira. Euskeraz eta gaztelaniaz idatzi ezkero, euskerazko testua bi aldiz handiagoa izango da.

Obrea egingo daben enpresek obran publizidaderik egitekotan, euskeraz egingo dabe; euskeraz eta gaztelaniaz egitekotan, lehentasun osoa emongo jako euskereari.

16.- Beste baldintza batzuk:

- Eraikinaren barruan ipiniko da putzu septikoa eta 3.3. erregistro-tapea eukiko dau. Erkidegoaren jabetzako tokietan (kolarrean edo atarian, garajean, arrapalan eta abarrean) jarriko da eta debekatuta dago loian ipintea.

- 100 metro koadru bakotxeko eta teilaturainoko aireztatze-tximiniaz horniduko da loiea. Tximinia barrukoa izango da eta ez da joango inoiz fatxadatik. Etxebizitzen aireztatze-hodietatik kanpo egongo da.

- Oinaren okupazinoa 100 metro koadrura heltzen ez diran orube txikietan, aitatutako aireztatze-tximinia aurreikusi beharko da, aurreko esan-multzoan azaldutako baldintzetan.

- CTE-DB-SI arauak ezarritakoa betez, kolar edo ataria, loia eta beste establezimendu enparaduetako ateak kanporantz ireki beharko dira, kanpoko espazio publikoaren gunean sartu barik.

- Eskegita dagozan erropak ikustea guztiz eragotziko daben lamak edo saretak eukiko dabez eskegitokiek.

- Indarrean dagoan planeamenduko 4.4.4 puntua betez, babesteko hesi bat jarriko da obran, gitxienez metro 2ko altuerea eukiko dauena. Euki leiken edo leikezan atea edo ateak barrurantz zabalduko dira eta lanorduetatik kanpo itxita egongo dira.

- Kontuan euki beharko da, oztopo arkitektonikoak kentzeari buruz indarrean dagoan araudi guztian ezarritakoa.

- Eraikin barrien fatxadak kable edo linea ezarpenak ipintetik salbuetsita geratuko dira (elektrizidadea, telefonia, eta abar). Lurrazpikoak izango dira honeek nahitaez.

- Obreagaz hasi aurretik, eskatzaileak obraren eraginez kaltetuta geratu leikezan kanalizazino eta zerbitzu guztiak ezagutu beharko dauz, eta, horrretarako, hartu-emonak izan beharko dauz kalteak jasan leikezan enpresa guztiakaz, bakotxaren araudia kontuan izateko eta instalazinoak zehatz-mehatz non dagozan jakiteko. Eskatzailearen erantzukizuna da aitatutakoak ez ezagutzea.

- Mueta honetako obrak egiten diran eraikinentzat indarrean dagoan araudi hau beteko da:

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

- CTE
- CTE-DB-SI
- CTE-DB-SE
- CTE-DB-SUA
- CTE-DB-HS
- CTE-DB-HE
- CTE-DB-HR

- Obrak hasi aurretik, behar dan Zuinketa Aktea egin beharko da. Horretarako Bermeoko Udaleko Sail Teknikoari esan beharko jako, indarrean dagoan araudiak ezarten dauen moduan.

  Akta horretan, obran gastau daitekeen ura neurtzeko kontagailurik dagoan egiaztatu beharko da. Kontagailurik ez badago ezin izango da aktarik izenpetu.

- 1/1998 eta 346/2011 errege-dekretuek ezarritakoaren arabera, telekomunikazinoetako azpiegitura komunentzat proiektu berezia agertu behar da obrak burutzeko proiektuan.

- Gas kontagailua eraikinaren barru aldean ipiniko da. Kanpora aireatuko da eta sarbideko atea barru aldetik eukiko dau. Gas instalazinoa udaleko araudiari egokituko jako, sarbidea kolarretik edo ataritik eukiko dau eta banaketea, bertikala izango da, eskegitokietako barruko aldetik jarria; ezin izango da ikusi fatxadatik.

- 1991ko apirilaren 22ko erabagia, industria eta meategiak administratzeko zuzendariarena, etxeetan, jendea batzen dan lokaletan eta dendetan, gas-instalazinoen ikuskapenei buruzko indarreko arau teknikoak ulertu eta apliketako behin betiko jarraibideak emoten dauzena.

- Obrearen hesian, kartel bat ipini beharko da, eta, bertan azalduko dira, lanaren hasierako datea, eta amaitzeko epea be, horren barri guztiek izateko.

- Obra hondakinak eta lurrak mobitea.

- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan Arriskuen Prebentziorako “Prevención de Riesgos Laborales” Legea eta baliokideak bete beharko da.

Eraikitze era eraiste lanetako hondakinak kudeatzea: Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak ezarritakoa beteko da. Horrek esan gura dau, honeek hondakinak derrigorrez eroan behar dirala legeztatutako obra-hondakindegira. Lanak hasi orduko, obra-hondakindegiko titularrak emondako baimen-konpromisoa aurkeztu beharko da.

Lurrak mobiteko lanetatik datozen hatx edo lurren kasuan, lurrak bete eta egokitzeko be erabili leikez. Horretarako, Eusko Jaurlaritzearen (Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Saila) baimena beharko da eta udalarena be bai, 5.000 m3tik beherako bolumenekoentzat.

Lizentzia emoten dauen erabagia behin betikoa da administrazino bidean, eta, erabagi horren aurka eta hemen jarritako edozein baldintzaren aurka, administrazinoarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Auzitegi Nagusiko Eskumeneko Salan. Aitatutako errekurtsoa jarri aurretik, baldintza legez, administrazino honi holan egingo dala jakinarazo beharko jako.

Administrazinoarekiko auzi-errekurtsoa ipinteko epea hilebete bikoa izango da, erabagi honen jakinarazpena hartzen dan hurrengo egunetik hasita.

Guzti hori, 1956ko abenduaren 27ko Administrazinoarekiko Auzien Jurisdikzinoaren 58. artikuluaren eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

**HIZTEGITXOA**

| | |
|---|---|
| **Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** | Recurso Contencioso-Administrativo |
| **Aireztatze-hodiak** | Conductos de ventilación |
| **Aireztatze-tximinia** | Chimenea de ventilación |
| **Arau subsidiarioak** | Normas subsidiarias |
| **Araudia** | Normativa |
| **Auzitegi Nagusiko Eskumenaren Sala** | Sala de la Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia |
| **Azpiegiturea** | Infraestructura |
| **Baldintzea** | Condición |
| **Bizigarritasun-zedulea** | Cédula de habitabilidad |
| **Epemugea** | Vencimiento |
| **Eraikina** | Edificio |
| **Erantzukizuna** | Responsabilidad |
| **Esan-multzoa** | Párrafo |
| **Eskegitokia** | Tendedero |
| **Harri-zolea** | Empedrado |
| **Ildo ofizialak** | Líneas oficiales |
| **Iraungi** | Caducar |
| **Jabeen erkidegoa** | Comunidad de propietarios |
| **Kitapena** | Liquidación |
| **Legegintzako Errege-Dekretua** | Real Decreto Legislativo |
| **Lerrokadurea** | Alineación |
| **Loiea** | Lonja |
| **Meategia** | Mina |
| **Objektu narriagarria** | Objeto que puede deteriorarse |
| **Obra-hondakindegia** | Escombrera |
| **Oholtzea** | Tablado |
| **Oina** | Planta |
| **Onuraduna** | Beneficiado |
| **Orubea** | Solar |
| **Oztopo arkitektonikoak** | Trabas arquitectónicas |
| **Salbuetsita** | Exento |
| **Sarbidea** | Acceso |
| **Trenkadea** | Mampara, tabique |
| **Urbidea** | Conducción de agua |
| **Urigintzea** | Urbanismo |
| **Zergea** | Impuesto |
| **Zigilua** | Sello |
| **Zuinketa Aktea** | Acta de Replanteo |

## 4.- BIZKAIKO JAURERRIA KALEA 12 ERAIKINEKO ATZEKO FATXADA BIRGAITZEKO OBRA LIZENTZIA ESKARIA ONARTZEA.

### Xedea

Bermeoko Bizkaiko Jaurerria kaleko 12 zenbakian kokatutako eraikineko atzeko fatxada birgaitzeko obra lizentzia eskariaren ebazpena.

### Aurrekariak

Lehenengoa.- 2023ko irailaren 16an, 14.605.411-C NAN zenbakidunak,

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

H48948426 IFZ Bermeoko Bizkaiko Jaurerria kaleko 12 zenbakiko jabe elkartearen izenean, eraikinaren atzeko fatxada birgaitzeko obra lizentzia eskaria aurkeztu zuen.

Bigarrena.- 2024ko apirilaren 4an Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Sailera atxikita dagoen arkitektoak txostena egin zuen.

Hirugarrena.- 2024ko apirilaren 15ean Bizkaiko Jaurerria 12ko jabe elkartearen ordezkaritzak eskatutako fidantzak gordailatu zituen.

Laugarrena.- 2024ko maiatzaren 6an Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak txostena egin zuen.

Bosgarrena.- 2024ko maiatzaren 6an Bermeoko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko administrazio orokorrak erabaki proposamena egin zuen eta hura dagokion organo eskudunari igorri zion.

**Oinarri juridikoak**

Lehenengoa.- Bai txosten teknikoan bai txosten juridikoan azaltzen den bezala, Bizkaiko Jaurerria 12 zenbakiaren jabe elkartearen eskaria bat dator hirigintza araudiarekin.

Bestalde, Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek eta Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 21871978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazio indarrean dagoen araudiarekin bat dator.

Bigarrena: Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 209.2. artikulua eta Toki administrazioen Oinarriak arautzen duen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikula kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da, baina eskumen hori 2024ko apirilaren 24ko 2024/1886 Alkatetza Dekretu bitartez Bermeoko Tokiko Gobernu Batzarraren alde delegatuta dago.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 14.605.411-C NAN zenbakidunari, H48948426 IFZ Bermeoko Bizkaiko Jaurerria kalea 12 zenbakiko jabe elkartearen izenean, zenbaki berdineko eraikinaren atzeko fatxada birgaitzeko obra lizentzia ematea onartzea aurkeztutako

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024<br>NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08 | **DOCUMENTO: 20241022695**<br>Datea: 15/05/2024<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

proiektuaren arabera.

BIGARRENA: Lizentziaren eraginkortasuna baldintza honek betetzera baldintzatuko da:

- 112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza ezarri da udalean.
- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da
- Lanak hasi aurretik haien zuinketa egiazta dezaten eskatu beharko zaie, udal zerbitzu teknikoei.
- Lanak egiteko okupazio publikoa beharko balitz, eskatu egin beharko da kokapena eta azalera udalarekin adostuz.
- Eraikinean egingo diren anetan, EKTari dagokionez, 450/2022 Errege Dekretua beteko da, ekainaren 14koa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena eta bere garapenean eginiko oinarrizko dokumentuak. (DB/SUA, DB/SI, DB/SE, DB/HE, DB/HS)
- Kanpoaldeko fatxaden eta gainerako itxituren definizioak eta tratamenduak harreman harmoniatsua bermatu beharko dute aldameneko fatxada eta itxiturekin. Lizentzia emateko erabili den proiektuan ezarritakoari jarraitu beharko zaio, eta gaur egun dauden kolore berberak erabili beharko dira, eraikuntza-multzoaren harreman harmoniatsua hausten ez dutenak.
- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

Baldintza honetaz gain, obra egiteko lizentzia eraginkorra izateko, lizentzia honeri

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

erantsita doazen baldintza orokorrak bete beharko dira.

Ohartarazten da baimen hau ez dela eraginkorra izango, baldintza guztiak betetzen ez diren bitartean.

HIRUGARRENA: Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira udalean:

- Instalazioei eta egindako lanei jagoken obra amaiera ziurtagiria eta likidazinoa. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diran arkitektoak eta arkitekto teknikoak sinatuta aurkeztu beharko da, baita jagokon Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko dan, **lanek, indarrean dagoan araudiagazko daukien egokiera eta udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea**.

- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten dan dokumentazinoa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu dirala egiaztatzeko.

1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txosten bat aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu honen III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da, edo,azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraikiz.

b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

egindakoak.

c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispen materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitorpena.

- Instalatzaileak emandako ziurtagiria, instalazioaren egokitasunarena. Industria ordezkaritzak abalatuta.

LAUGARRENA: Egin beharreko obrak lizentziaren bidez baimendutakoak baino ez dira izango. Baimendutako obretan egin nahi den aldaketa oro udalari jakinarazi beharko zaio, eta beste lizentzia bat eskatu beharko da. Obrak gainditzeak edo lizentzia baldintzak ez betetzeak obrak geldiaraztea eta dagozkien administrazio-zehapenak ezartzea ekarriko du.

BOSGARRENA: Lizentzia hau edo haren kopia kautotua obrak egiten diren lekuan egongo da, udal zerbitzu teknikoen eskura, eta zerbitzu horrei ikuskapenetarako eta egiaztapenetarako sarbidea eman beharko zaie, 2/2006 Legearen 217. eta 218. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

SEIGARRENA: Obraren aurrekontua 77.163,33€koa da. Obrak gehienez ere sei hilabeteko epean hasi beharko dira, lizentzia jakinarazi eta biharamunetik hasita, eta gehienez ere hiru hilabetez eten ahalko dira. Era berean, obrak egiteko epea sei hilabetekoa izango da, eta ohartarazten da adierazitako epeak obra hasi, jarraitu edo amaitu barik badaude, hurrenez hurren, udalak lizentzia iraungitzeko espedientea hasiko duela, interesdunak aipatutako obra egiteko luzapena eskatzen ez badu behintzat.

ZAZPIGARRENA: Obrak egiten diren bitartean, legez eskatu daitezkeen segurtasun neurri guztiak hartuko dira, obretatik hurbil dauden pertsonei kalterik ez egiteko.

ZORTZIGARRENA: Lizentziaren titularraren kontura izango dira bidean eta kasuan kasuko zerbitzu publikoetan sortu daitezkeen kalteen edo ukipenen ondorioz beharrezkoak diren birjartzeak, baldin eta obrak gauzatzearen ondorio badira.

BEDERATZIGARRENA: Obretako hesi, aldamio eta gainerako elementu osagarriekin eremu publikoa okupatzen bada, dagokion eskaera aurkeztu beharko da udalean.

HAMARGARRENA: Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza-eskubidea izan

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

ezik eta hirugarrenaren eskubideari kalterik egin gabe, eta lizentziaren titularraren erantzukizun esklusibopean.

HAMAIKAGARRENA: Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

HAMABIGARRENA: Errenta Sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributuak likidatzeko.

HAMAHIRUGARRENA: Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsoak adieraziz.

**OBRA HANDIETAN BETE BEHARREKO BALDINTZA OROKORRAK**

Obra lizentzia emoten dauen erabagian agertzen diran baldintzakaz batera, beste baldintza honeek be, bete beharko dira:

1.- Dagokion arkitektoak idatzi eta jagokon alkargoak behar dan moduan oneretxia emonda aurkeztuko da proiektu teknikoa, eta, bai honi eta bai emoten dan lizentziari be zehatz lotuta egingo dira obrak.

2.- Berau kokaturik dagoan kaleko lerrokadura ofizialetara egokituko da eraikuntzea. Udal arkitektoak azalduko dau horreek lerrokadurak zeintzuk diran.

3.- Obra lizentziaren kopia kanpotik ikusteko moduko leku baten egon beharko da lanak egiten diren bitartean, esaterako kolarreko kristalean, atarian, auzoko iragarki taulan…

4.- Lizentzia eskatu eta lortu ostean, eskatzailea honako honeetara egongo da behartuta:

a) Urigintza arloko arauak eta ezarritako baldintzak oso-osorik betetera. Honeen baldintzen artean, funtsezkoa izango da, aplikagarria dan kasuetan, jarritako ildo ofizialetara zehatz atxikitzea obrea.

b) Ordenantza fiskalek ezarten dabezan zergak ordaintzera. Eskaria egiten dan momentutik onartzen da betebehar hori.

c) Lizentzia dala-eta, sortzen diran gastu guztiak ordaintzera, bardin, bide publikoan, harri-zoletan, pasealekuetan, espaloietan, urbideetan, faroletan eta abarrean be; orokorrean, jabari publikoko objektu narriagarrietan sortu leikezan kalteak ordaintzera.

d) Bai obrea burutzen dagoan bitartean, bai honen amaieran be, udal zerbitzuei ikuskapena egiteko aukerea emotera. Ezarritako baldintzak bete dirala frogatuko dabe honeek ikuskapenak.

e) Lanek irauten daben bitartean gertatu leikezan intzidentzia guztien erantzulea izatera.

f) Indarrean dagoan legediak esijitutako ganerako betebeharrak betetera.

g) Ur kontagailua ipini beharko da, obrea burutzen dan bitartean kontsumitzen dan ura neurtzeko. Zuinketa Aktea izenpetu aurretik jarri beharko da kontagailu hori, Ur Hornidurea eta Ur Zerbitzuaren Kudeaketarako Erregelamenduaren 78. artikuluak xedatutakoa betez.

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Kontagailua ipinteko beharrezkoa dan eskaria egin beharko da udaletxe honetan, erregelamendu horren 5. artikuluak xedatzen dauenaren arabera.

h) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2016ko uztailaren 19an argitaratu zan Bermeoko Udaleko Zaratei eta dardarei buruzko Udal Ordenantzea beteko da.

i) Hormigoi kamioiak ezin izango dira garbitu obran bertan, kamioiak garbitzean sortzen dan zementuzko karesnedun ura kainu-zuloetara joaten dalako eta kainu-zuloak itxi egiten diralako.

j) Udalak obrea hartu orduko Udal Zerbitzuek kainu-zuloak ikuskatu egingo dabez, eta itxita egon ezkero, esleipendunak garbitu egin beharko dauz, beti be udalak obrea hartu baino lehenago.

k) Zuinketa aktan kalearen egoerea zehaztuko da (galtzada-harriak eta espaloia), beharrezkoa bada, bizigarritasuna emon baino lehen konpondu ahal izateko.

5.- Horretarako legez baimenduta dagoan pertsona baten zuzendaritza fakultatibopean burutuko dira obrak; zuzendari fakultatibo horrek obran jarduteari izten badeutso, hiru egunen barruan eta jagokon alkargo ofizialak onetsitako ofizio bidez, obren sekzinoari emongo deutso horren barri. Jabeak, orduan, zuzendari fakultatibo barria izendatuko dau eta sekzinoari idatziz jakinarazo enkargu-orri egokia eta oneretxia emondakoan. Obrearen zuzendari fakultatiboak uko egin eta hiru egun igaro eta gero, izapide hori oraindino bete ez badau, Obra Sekzinoak lanen jarraipena etengo dau formalidade hori bete arte.

6.- Obreak irauten dauen bitartean proiektuan aldaketarik sartzea beharrezkoa bada, aurretik obra printzipalarentzat egin dan moduan, jagokon baimena eskatuko dau. Proiektua aurkeztu zanean eskatu bada edo egindako kitapenarena baino diru-kopuru handiagoa izateko arrazoirik eragiten ez bada, ez da sortuko eskubiderik. Holan izan ezean, diferentzia bakarrik ordainduko da.

7.- Eskatzaileak udaleko funtzionarioen esku itziko dauz planoen aleak onartuta eta zigilua emonda.

8.- Berehala erabiliko ez diran hutsune guztiak itxi egin beharko dira. Itxierea itxurosoa izango da eta ez da onartuko barrualdea ikusteko modurik izatea, ezta leundu eta pintatu bako trenkadarik, oholtzarik edo antzeko materialik be.

9.- Hasitako obrak ezin izango dira itzi amaitu barik. Hori gertatzen bada, udalak beharrezkoak diran xedapenak aginduko dauz. Lanak amaitzea agindu ahal izango dau, orubearen eta eraikinaren kargura.

10.-Obrak amaitu eta gero, jabeak jakinaren ganean ipiniko dau udala hamabost eguneko epe barruan. Jakinarazpen honegaz batera, obrea, onartutako proiektuaren arabera eginda dagoala frogatuko dauen obrako zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria aurkeztu beharko dau.

11.- Etxebizitzak okupatu aurretik, Alkatetzeari eskatuko jako bizigarritasun-zedulea. Udal aginteak ez dau baimenduko altzariak etxe-aldatzerik, ezta establezimendua irekiterik be, aurreko esan-multzoan ezarri dan moduan, emondako eraikuntza-lizentziaren baldintzetara lotuta egin dirala obrak egiaztatzen ez bada.

Era berean, solairu bakotxari ur-hornidurea mozten ez jakon arte ez jako emongo lizentziarik. Geroko erabiltzaileek formalizatuko dabe udaletxeko bulegoetan ur zerbitzuan abonadua izateko inskripzinoa. Kontratisteak izango dau solairu bakotxean ur-hodia ebagiteko baldintzea ez betetearen erantzukizuna.

12.- Obra lizentzia, kasu honeetan iraungiko da, ordaindutakoa itzultzeko eskubide barik:
- Udalak ezarritako epe barruan obrak hasi ez diranean.
- Obrak hasi eta gero, sei hilebetetan etenda geratu diranean.
- Horretarako ezarri dan epe zehatzean, edo, egon leitekeen luzapenean obrak amaitu ez diranean.

Epeak amaitu aurretik, arrazoitutako geldiarazpena edo berandutzea jakinarazo ezkero udalari, edo

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

ezinbestekoagaitik izan dala frogatu ezkero, ez da kontuan hartuko epemugarik.

13.- Jabego eskubidea kenduta eta hirugarren pertsonen eskubideak gordeta emon dala baimena ulertuko da, eta onuradunak ezin izango dau erabili bere jardunean izandako erantzukizun zibila edo penala baztertzeko zein gitxitzeko.

14.- Lizentzia honetan aurreikusten ez dan guztirako, herriko arau subsidiarioek eta urigintzako ordenantzek xedatutakora egongo gara.

15.- Euskerearen Normalizazinorako Udal Ordenantzeak dinoana bete beharko da, era honetara: Obrearen seinaleak eta moeta guztietako oharrak, segurtasun arauen panelak… euskeraz idatzita egongo dira. Euskeraz eta gaztelaniaz idatzi ezkero, euskerazko testua bi aldiz handiagoa izango da.

Obrea egingo daben enpresek obran publizidaderik egitekotan, euskeraz egingo dabe; euskeraz eta gaztelaniaz egitekotan, lehentasun osoa emongo jako euskereari.

16.- Beste baldintza batzuk:

- Eraikinaren barruan ipiniko da putzu septikoa eta 3.3. erregistro-tapea eukiko dau. Erkidegoaren jabetzako tokietan (kolarrean edo atarian, garajean, arrapalan eta abarrean) jarriko da eta debekatuta dago loian ipintea.

- 100 metro koadru bakotxeko eta teilaturainoko aireztatze-tximiniaz horniduko da loiea. Tximinia barrukoa izango da eta ez da joango inoiz fatxadatik. Etxebizitzen aireztatze-hodietatik kanpo egongo da.

- Oinaren okupazinoa 100 metro koadrura heltzen ez diran orube txikietan, aitatutako aireztatze-tximinia aurreikusi beharko da, aurreko esan-multzoan azaldutako baldintzetan.

- CTE-DB-SI arauak ezarritakoa betez, kolar edo ataria, loia eta beste establezimendu enparaduetako ateak kanporantz ireki beharko dira, kanpoko espazio publikoaren gunean sartu barik.

- Eskegita dagozan erropak ikustea guztiz eragotziko daben lamak edo saretak eukiko dabez eskegitokiek.

- Indarrean dagoan planeamenduko 4.4.4 puntua betez, babesteko hesi bat jarriko da obran, gitxienez metro 2ko altuerea eukiko dauena. Euki leiken edo leikezan atea edo ateak barrurantz zabalduko dira eta lanorduetatik kanpo itxita egongo dira.

- Kontuan euki beharko da, oztopo arkitektonikoak kentzeari buruz indarrean dagoan araudi guztian ezarritakoa.

- Eraikin barrien fatxadak kable edo linea ezarpenak ipintetik salbuetsita geratuko dira (elektrizidadea, telefonia, eta abar). Lurrazpikoak izango dira honeek nahitaez.

- Obreagaz hasi aurretik, eskatzaileak obraren eraginez kaltetuta geratu leikezan kanalizazino eta zerbitzu guztiak ezagutu beharko dauz, eta, horrretarako, hartu-emonak izan beharko dauz kalteak jasan leikezan enpresa guztiakaz, bakotxaren araudia kontuan izateko eta instalazinoak zehatz-mehatz non dagozan jakiteko. Eskatzailearen erantzukizuna da aitatutakoak ez ezagutzea.

- Mueta honetako obrak egiten diran eraikinentzat indarrean dagoan araudi hau beteko da:

- CTE
- CTE-DB-SI
- CTE-DB-SE
- CTE-DB-SUA
- CTE-DB-HS
- CTE-DB-HE

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- CTE-DB-HR

- Obrak hasi aurretik, behar dan Zuinketa Aktea egin beharko da. Horretarako Bermeoko Udaleko Sail Teknikoari esan beharko jako, indarrean dagoan araudiak ezarten dauen moduan.

  Akta horretan, obran gastau daitekeen ura neurtzeko kontagailurik dagoan egiaztatu beharko da. Kontagailurik ez badago ezin izango da aktarik izenpetu.

- 1/1998 eta 346/2011 errege-dekretuek ezarritakoaren arabera, telekomunikazinoetako azpiegitura komunentzat proiektu berezia agertu behar da obrak burutzeko proiektuan.

- Gas kontagailua eraikinaren barru aldean ipiniko da. Kanpora aireatuko da eta sarbideko atea barru aldetik eukiko dau. Gas instalazinoa udaleko araudiari egokituko jako, sarbidea kolarretik edo ataritik eukiko dau eta banaketea, bertikala izango da, eskegitokietako barruko aldetik jarria; ezin izango da ikusi fatxadatik.

- 1991ko apirilaren 22ko erabagia, industria eta meategiak administratzeko zuzendariarena, etxeetan, jendea batzen dan lokaletan eta dendetan, gas-instalazinoen ikuskapenei buruzko indarreko arau teknikoak ulertu eta apliketako behin betiko jarraibideak emoten dauzena.

- Obrearen hesian, kartel bat ipini beharko da, eta, bertan azalduko dira, lanaren hasierako datea, eta amaitzeko epea be, horren barri guztiek izateko.

- Obra hondakinak eta lurrak mobitea.

- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan Arriskuen Prebentziorako “Prevención de Riesgos Laborales” Legea eta baliokideak bete beharko da.

Eraikitze era eraiste lanetako hondakinak kudeatzea: Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak ezarritakoa beteko da. Horrek esan gura dau, honeek hondakinak derrigorrez eroan behar dirala legeztatutako obra-hondakindegira. Lanak hasi orduko, obra-hondakindegiko titularrak emondako baimen-konpromisoa aurkeztu beharko da.

Lurrak mobiteko lanetatik datozen hatx edo lurren kasuan, lurrak bete eta egokitzeko be erabili leikez. Horretarako, Eusko Jaurlaritzearen (Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Saila) baimena beharko da eta udalarena be bai, 5.000 m3tik beherako bolumenekoentzat.

Lizentzia emoten dauen erabagia behin betikoa da administrazino bidean, eta, erabagi horren aurka eta hemen jarritako edozein baldintzaren aurka, administrazinoarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Auzitegi Nagusiko Eskumeneko Salan. Aitatutako errekurtsoa jarri aurretik, baldintza legez, administrazino honi holan egingo dala jakinarazo beharko jako.

Administrazinoarekiko auzi-errekurtsoa ipinteko epea hilebete bikoa izango da, erabagi honen jakinarazpena hartzen dan hurrengo egunetik hasita.

Guzti hori, 1956ko abenduaren 27ko Administrazinoarekiko Auzien Jurisdikzinoaren 58. artikuluaren eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

**HIZTEGITXOA**

| | |
|---|---|
| **Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** | Recurso Contencioso-Administrativo |
| **Aireztatze-hodiak** | Conductos de ventilación |
| **Aireztatze-tximinia** | Chimenea de ventilación |
| **Arau subsidiarioak** | Normas subsidiarias |
| **Araudia** | Normativa |
| **Auzitegi Nagusiko Eskumenaren Sala** | Sala de la Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia |
| **Azpiegiturea** | Infraestructura |
| **Baldintzea** | Condición |
| **Bizigarritasun-zedulea** | Cédula de habitabilidad |
| **Epemugea** | Vencimiento |
| **Eraikina** | Edificio |
| **Erantzukizuna** | Responsabilidad |
| **Esan-multzoa** | Párrafo |
| **Eskegitokia** | Tendedero |
| **Harri-zolea** | Empedrado |
| **Ildo ofizialak** | Líneas oficiales |
| **Iraungi** | Caducar |
| **Jabeen erkidegoa** | Comunidad de propietarios |
| **Kitapena** | Liquidación |
| **Legegintzako Errege-Dekretua** | Real Decreto Legislativo |
| **Lerrokadurea** | Alineación |
| **Loiea** | Lonja |
| **Meategia** | Mina |
| **Objektu narriagarria** | Objeto que puede deteriorarse |
| **Obra-hondakindegia** | Escombrera |
| **Oholtzea** | Tablado |
| **Oina** | Planta |
| **Onuraduna** | Beneficiado |
| **Orubea** | Solar |
| **Oztopo arkitektonikoak** | Trabas arquitectónicas |
| **Salbuetsita** | Exento |
| **Sarbidea** | Acceso |
| **Trenkadea** | Mampara, tabique |
| **Urbidea** | Conducción de agua |
| **Urigintzea** | Urbanismo |
| **Zergea** | Impuesto |
| **Zigilua** | Sello |
| **Zuinketa Aktea** | Acta de Replanteo |

**5.- EUPEME DEUNA KALEA 7 ERAIKINEKO ESTALKIA BIRGAITZEKO OBRA LIZENTZIA ESKARIA ONARTZEA.**

**Xedea**

Bermeoko Eupeme Deuna kaleko 7 zenbakian kokatuta dagoen eraikinaren estalkia birgaitzeko aurkeztutako obra lizentzia eskaeraren ebazpena.

**Aurrekariak**

Lehenengoa.- 2024ko martxoaren 22an, 07.950.124-J NAN zenbakidunak,

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

H95299848 IFZ Bermeoko Eupeme Deuna kalea 7 zenbakiko jabe elkartearen izenean, zenbaki berdineko eraikinaren estalkia birgaitzeko obra lizentzia eskaria aurkeztu zuen.

Bigarrena.- 2024ko apirilaren 19an Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Sailera atxikita dagoen arkitektoak txostena egin zuen.

Hirugarrena.- 2024ko maiatzaren 6an Bermeoko Eupeme Deuna kalea 7ko jabe elkartearen ordezkaritzak eskatutako fidantzak gordailatu zituen.

Laugarrena.- 2024ko maiatzaren 7an Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak txostena egin zuen.

Bosgarrena.- 2024ko maiatzaren 7an Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak erabaki proposamena egin eta hura dagokion organo eskudunari igorri zion.

**Oinarri juridikoak**

Lehenengoa: Bai txosten teknikoan bai txosten juridikoan azaltzen den bezala, eskatzailearen eskaria bat dator hirigintza araudiarekin.

Bestalde, Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek eta Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 21871978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazio indarrean dagoen araudiarekin bat dator, kasuari aplika dakizkiokeen gainerako legeetan ezarritakoari kalterik egin gabe.

Bigarrena: Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 209.2. artikulua eta Toki administrazioen oinarriak arautzen duen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikula kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da, baina eskumen hori 2024ko aprilaren 24ko 2024/1886 zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 07.950.124-J NAN zenbakidunak, H95299848 IFZ Bermeoko Eupeme Deuna kalea 7 zenbakiko jabe elkartearen izenean, zenbaki berdineko eraikinaren estalkia birgaitzeko obra lizentzia ematea aurkeztutako proiektuaren

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

arabera.

<u>BIGARRENA</u>: Lizentziaren eraginkortasuna baldintza honek betetzera baldintzatuko da:

-112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza ezarriko du udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du, bestela obra baimenak ez du baliorik izango. Hala nola, espedientean ikusi daitekeen moduan eskatzaileak aipatutako fidantza 2024ko maiatzaren 6an gordailatu zuen.

- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango

da.

- Lanak direla eta, espazio publikoa beharko balitz, eskatu egin beharko da kokapena eta azalera udalarekin adostuz.

- Bermeoko Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Bereziak ezarritakoa errespetatu beharko da.

- Sarrera nagusiko atea Bermeoko Plan Bereziak ezarritakora egokituko da.

- Eraikinean egingo diren lanetan, EKTari dagokionez, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretua bete beharko da.

- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan. Ohartarazten da baimen hau ez dela eraginkorra izango, baldintza guztiak betetzen ez diren bitartean.

<u>HIRUGARRENA</u>: Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira udalean:

- Instalazioei eta egindako lanei dagozkien obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa.

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diren arkitektoak eta arkitekto teknikoak sinatuta aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, **lanek, indarrean dagoen araudiazko duten egokiera eta udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea**.

- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.

1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txosten bat aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu honen III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da, edo,azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraikiz.

b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.

c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispen-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitorpena.

- Instalatzaileak emandako ziurtagiria, instalazioaren egokitasunarena. Industria ordezkaritzak abalatuta.

<u>LAUGARRENA</u>: Egin beharreko obrak lizentziaren bidez baimendutakoak baino ez dira izango. Baimendutako obretan egin nahi den aldaketa oro udalari jakinarazi beharko zaio, eta beste lizentzia bat eskatu beharko da. Obrak gainditzeak edo

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

lizentzia baldintzak ez betetzeak obrak geldiaraztea eta dagozkien administrazio-zehapenak ezartzea ekarriko du.

BOSGARRENA: Lizentzia hau edo haren kopia kautotua obrak egiten diren lekuan egongo da, udal zerbitzu teknikoen eskura, eta zerbitzu horrei ikuskapenetarako eta egiaztapenetarako sarbidea eman beharko zaie, 2/2006 Legearen 217. eta 218. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

SEIGARRENA: Obraren aurrekontua 15.702,45€koa da. Obrak gehienez ere sei hilabeteko epean hasi beharko dira, lizentzia jakinarazi eta biharamunetik hasita, eta gehienez ere hiru hilabetez eten ahalko dira. Era berean, obrak egiteko epea sei hilabetekoa izango da, eta ohartarazten da adierazitako epeak obra hasi, jarraitu edo amaitu barik badaude, hurrenez hurren, udalak lizentzia iraungitzeko espedientea hasiko duela, interesdunak aipatutako obra egiteko luzapena eskatzen ez badu behintzat.

ZAZPIGARRENA: Obrak egiten diren bitartean, legez eskatu daitezkeen segurtasun neurri guztiak hartuko dira, obretatik hurbil dauden pertsonei kalterik ez egiteko.

ZORTZIGARRENA: Lizentziaren titularraren kontura izango dira bidean eta kasuan kasuko zerbitzu publikoetan sortu daitezkeen kalteen edo ukipenen ondorioz beharrezkoak diren birjartzeak, baldin eta obrak gauzatzearen ondorio badira.

BEDERATZIGARRENA: Obretako hesi, aldamio eta gainerako elementu osagarriekin eremu publikoa okupatzen bada, dagokion eskaera aurkeztu beharko da udalean. Espedientean ikusi daitekeen bezala eskatzaileak 2024ko maiatzaren 6an aldamuak jartzeagatik eta hauek urbanizazioan sor dezaketen kalteak direla eta 1.000 euroko fidantza gordailatu zuen.

HAMARGARRENA: Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza-eskubidea izan ezik eta hirugarrenaren eskubideari kalterik egin gabe, eta lizentziaren titularraren erantzukizun esklusibopean.

HAMAIKAGARRENA: Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

HAMABIGARRENA: Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024<br>NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08 | DOCUMENTO: 20241022695<br>Datea: 15/05/2024<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

tributuak likidatzeko.

HAMAHIRUGARRENA: Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsoak adieraziz.

**OBRA HANDIETAN BETE BEHARREKO BALDINTZA OROKORRAK**

Obra lizentzia emoten dauen erabagian agertzen diran baldintzakaz batera, beste baldintza honeek be, bete beharko dira:

1.- Dagokion arkitektoak idatzi eta jagokon alkargoak behar dan moduan oneretxia emonda aurkeztuko da proiektu teknikoa, eta, bai honi eta bai emoten dan lizentziari be zehatz lotuta egingo dira obrak.

2.- Berau kokaturik dagoan kaleko lerrokadura ofizialetara egokituko da eraikuntzea. Udal arkitektoak azalduko dau horreek lerrokadurak zeintzuk diran.

3.- Obra lizentziaren kopia kanpotik ikusteko moduko leku baten egon beharko da lanak egiten diren bitartean, esaterako kolarreko kristalean, atarian, auzoko iragarki taulan…

4.- Lizentzia eskatu eta lortu ostean, eskatzailea honako honeetara egongo da behartuta:

a) Urigintza arloko arauak eta ezarritako baldintzak oso-osorik betetera. Honeen baldintzen artean, funtsezkoa izango da, aplikagarria dan kasuetan, jarritako ildo ofizialetara zehatz atxikitzea obrea.

b) Ordenantza fiskalek ezarten dabezan zergak ordaintzera. Eskaria egiten dan momentutik onartzen da betebehar hori.

c) Lizentzia dala-eta, sortzen diran gastu guztiak ordaintzera, bardin, bide publikoan, harri-zoletan, pasealekuetan, espaloietan, urbideetan, faroletan eta abarrean be; orokorrean, jabari publikoko objektu narriagarrietan sortu leikezan kalteak ordaintzera.

d) Bai obrea burutzen dagoan bitartean, bai honen amaieran be, udal zerbitzuei ikuskapena egiteko aukerea emotera. Ezarritako baldintzak bete dirala frogatuko dabe honeek ikuskapenak.

e) Lanek irauten daben bitartean gertatu leikezan intzidentzia guztien erantzulea izatera.

f) Indarrean dagoan legediak esijitutako ganerako betebeharrak betetera.

g) Ur kontagailua ipini beharko da, obrea burutzen dan bitartean kontsumitzen dan ura neurtzeko. Zuinketa Aktea izenpetu aurretik jarri beharko da kontagailu hori, Ur Hornidurea eta Ur Zerbitzuaren Kudeaketarako Erregelamenduaren 78. artikuluak xedatutakoa betez. Kontagailua ipinteko beharrezkoa dan eskaria egin beharko da udaletxe honetan, erregelamendu horren 5. artikuluak xedatzen dauenaren arabera.

h) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2016ko uztailaren 19an argitaratu zan Bermeoko Udaleko Zaratei eta dardarei buruzko Udal Ordenantzea beteko da.

i) Hormigoi kamioiak ezin izango dira garbitu obran bertan, kamioiak garbitzean sortzen dan zementuzko karesnedun ura kainu-zuloetara joaten dalako eta kainu-zuloak itxi egiten diralako.

j) Udalak obrea hartu orduko Udal Zerbitzuek kainu-zuloak ikuskatu egingo dabez, eta itxita egon ezkero, esleipendunak garbitu egin beharko dauz, beti be udalak obrea hartu baino lehenago.

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

k) Zuinketa aktan kalearen egoerea zehaztuko da (galtzada-harriak eta espaloia), beharrezkoa bada, bizigarritasuna emon baino lehen konpondu ahal izateko.

5.- Horretarako legez baimenduta dagoan pertsona baten zuzendaritza fakultatibopean burutuko dira obrak; zuzendari fakultatibo horrek obran jarduteari izten badeutso, hiru egunen barruan eta jagokon alkargo ofizialak onetsitako ofizio bidez, obren sekzinoari emongo deutso horren barri. Jabeak, orduan, zuzendari fakultatibo barria izendatuko dau eta sekzinoari idatziz jakinarazo enkargu-orri egokia eta oneretxia emondakoan. Obrearen zuzendari fakultatiboak uko egin eta hiru egun igaro eta gero, izapide hori oraindino bete ez badau, Obra Sekzinoak lanen jarraipena etengo dau formalidade hori bete arte.

6.- Obreak irauten dauen bitartean proiektuan aldaketarik sartzea beharrezkoa bada, aurretik obra printzipalarentzat egin dan moduan, jagokon baimena eskatuko dau. Proiektua aurkeztu zanean eskatu bada edo egindako kitapenarena baino diru-kopuru handiagoa izateko arrazoirik eragiten ez bada, ez da sortuko eskubiderik. Holan izan ezean, diferentzia bakarrik ordainduko da.

7.- Eskatzaileak udaleko funtzionarioen esku itziko dauz planoen aleak onartuta eta zigilua emonda.

8.- Berehala erabiliko ez diran hutsune guztiak itxi egin beharko dira. Itxierea itxurosoa izango da eta ez da onartuko barrualdea ikusteko modurik izatea, ezta leundu eta pintatu bako trenkadarik, oholtzarik edo antzeko materialik be.

9.- Hasitako obrak ezin izango dira itzi amaitu barik. Hori gertatzen bada, udalak beharrezkoak diran xedapenak aginduko dauz. Lanak amaitzea agindu ahal izango dau, orubearen eta eraikinaren kargura.

10.-Obrak amaitu eta gero, jabeak jakinaren ganean ipiniko dau udala hamabost eguneko epe barruan. Jakinarazpen honegaz batera, obrea, onartutako proiektuaren arabera eginda dagoala frogatuko dauen obrako zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria aurkeztu beharko dau.

11.- Etxebizitzak okupatu aurretik, Alkatetzeari eskatuko jako bizigarritasun-zedulea. Udal aginteak ez dau baimenduko altzariak etxe-aldatzerik, ezta establezimendua irekiterik be, aurreko esan-multzoan ezarri dan moduan, emondako eraikuntza-lizentziaren baldintzetara lotuta egin dirala obrak egiaztatzen ez bada.

Era berean, solairu bakotxari ur-hornidurea mozten ez jakon arte ez jako emongo lizentziarik. Geroko erabiltzaileek formalizatuko dabe udaletxeko bulegoetan ur zerbitzuan abonadua izateko inskripzinoa. Kontratisteak izango dau solairu bakotxean ur-hodia ebagiteko baldintzea ez betetearen erantzukizuna.

12.- Obra lizentzia, kasu honeetan iraungiko da, ordaindutakoa itzultzeko eskubide barik:

- Udalak ezarritako epe barruan obrak hasi ez diranean.
- Obrak hasi eta gero, sei hilebetetan etenda geratu diranean.
- Horretarako ezarri dan epe zehatzean, edo, egon leitekeen luzapenean obrak amaitu ez diranean.

Epeak amaitu aurretik, arrazoitutako geldiarazpena edo berandutzea jakinarazo ezkero udalari, edo ezinbestekoagaitik izan dala frogatu ezkero, ez da kontuan hartuko epemugarik.

13.- Jabego eskubidea kenduta eta hirugarren pertsonen eskubideak gordeta emon dala baimena ulertuko da, eta onuradunak ezin izango dau erabili bere jardunean izandako erantzukizun zibila edo penala baztertzeko zein gitxitzeko.

14.- Lizentzia honetan aurreikusten ez dan guztirako, herriko arau subsidiarioek eta urigintzako ordenantzek xedatutakora egongo gara.

15.- Euskerearen Normalizazinorako Udal Ordenantzeak dinoana bete beharko da, era honetara: Obrearen seinaleak eta moeta guztietako oharrak, segurtasun arauen panelak… euskeraz idatzita egongo dira. Euskeraz eta gaztelaniaz idatzi ezkero, euskerazko testua bi aldiz handiagoa izango da.

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI · IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Obrea egingo daben enpresek obran publizidaderik egitekotan, euskeraz egingo dabe; euskeraz eta gaztelaniaz egitekotan, lehentasun osoa emongo jako euskereari.

16.- Beste baldintza batzuk:

- Eraikinaren barruan ipiniko da putzu septikoa eta 3.3. erregistro-tapea eukiko dau. Erkidegoaren jabetzako tokietan (kolarrean edo atarian, garajean, arrapalan eta abarrean) jarriko da eta debekatuta dago loian ipintea.

- 100 metro koadru bakotxeko eta teilaturainoko aireztatze-tximiniaz horniduko da loiea. Tximinia barrukoa izango da eta ez da joango inoiz fatxadatik. Etxebizitzen aireztatze-hodietatik kanpo egongo da.

- Oinaren okupazinoa 100 metro koadrura heltzen ez diran orube txikietan, aitatutako aireztatze-tximinia aurreikusi beharko da, aurreko esan-multzoan azaldutako baldintzetan.

- CTE-DB-SI arauak ezarritakoa betez, kolar edo ataria, loia eta beste establezimendu enparaduetako ateak kanporantz ireki beharko dira, kanpoko espazio publikoaren gunean sartu barik.

- Eskegita dagozan erropak ikustea guztiz eragotziko daben lamak edo saretak eukiko dabez eskegitokiek.

- Indarrean dagoan planeamenduko 4.4.4 puntua betez, babesteko hesi bat jarriko da obran, gitxienez metro 2ko altuerea eukiko dauena. Euki leiken edo leikezan atea edo ateak barrurantz zabalduko dira eta lanorduetatik kanpo itxita egongo dira.

- Kontuan euki beharko da, oztopo arkitektonikoak kentzeari buruz indarrean dagoan araudi guztian ezarritakoa.

- Eraikin barrien fatxadak kable edo linea ezarpenak ipintetik salbuetsita geratuko dira (elektrizidadea, telefonia, eta abar). Lurrazpikoak izango dira honeek nahitaez.

- Obreagaz hasi aurretik, eskatzaileak obraren eraginez kaltetuta geratu leikezan kanalizazino eta zerbitzu guztiak ezagutu beharko dauz, eta, horrretarako, hartu-emonak izan beharko dauz kalteak jasan leikezan enpresa guztiakaz, bakotxaren araudia kontuan izateko eta instalazinoak zehatz-mehatz non dagozan jakiteko. Eskatzailearen erantzukizuna da aitatutakoak ez ezagutzea.

- Mueta honetako obrak egiten diran eraikinentzat indarrean dagoan araudi hau beteko da:

- CTE
- CTE-DB-SI
- CTE-DB-SE
- CTE-DB-SUA
- CTE-DB-HS
- CTE-DB-HE
- CTE-DB-HR

- Obrak hasi aurretik, behar dan Zuinketa Aktea egin beharko da. Horretarako Bermeoko Udaleko Sail Teknikoari esan beharko jako, indarrean dagoan araudiak ezarten dauen moduan.

  Akta horretan, obran gastau daitekeen ura neurtzeko kontagailurik dagoan egiaztatu beharko da. Kontagailurik ez badago ezin izango da aktarik izenpetu.

- 1/1998 eta 346/2011 errege-dekretuek ezarritakoaren arabera, telekomunikazinoetako azpiegitura komunentzat proiektu berezia agertu behar da obrak burutzeko proiektuan.

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Gas kontagailua eraikinaren barru aldean ipiniko da. Kanpora aireatuko da eta sarbideko atea barru aldetik eukiko dau. Gas instalazinoa udaleko araudiari egokituko jako, sarbidea kolarretik edo ataritik eukiko dau eta banaketea, bertikala izango da, eskegitokietako barruko aldetik jarria; ezin izango da ikusi fatxadatik.

- 1991ko apirilaren 22ko erabagia, industria eta meategiak administratzeko zuzendariarena, etxeetan, jendea batzen dan lokaletan eta dendetan, gas-instalazinoen ikuskapenei buruzko indarreko arau teknikoak ulertu eta apliketako behin betiko jarraibideak emoten dauzena.

- Obrearen hesian, kartel bat ipini beharko da, eta, bertan azalduko dira, lanaren hasierako datea, eta amaitzeko epea be, horren barri guztiek izateko.

- Obra hondakinak eta lurrak mobitea.

- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan Arriskuen Prebentziorako “Prevención de Riesgos Laborales” Legea eta baliokideak bete beharko da.

Eraikitze era eraiste lanetako hondakinak kudeatzea: Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak ezarritakoa beteko da. Horrek esan gura dau, honeek hondakinak derrigorrez eroan behar dirala legeztatutako obra-hondakindegira. Lanak hasi orduko, obra-hondakindegiko titularrak emondako baimen-konpromisoa aurkeztu beharko da.

Lurrak mobiteko lanetatik datozen hatx edo lurren kasuan, lurrak bete eta egokitzeko be erabili leikez. Horretarako, Eusko Jaurlaritzearen (Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Saila) baimena beharko da eta udalarena be bai, 5.000 m3tik beherako bolumenekoentzat.

Lizentzia emoten dauen erabagia behin betikoa da administrazino bidean, eta, erabagi horren aurka eta hemen jarritako edozein baldintzaren aurka, administrazinoarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Auzitegi Nagusiko Eskumeneko Salan. Aitatutako errekurtsoa jarri aurretik, baldintza legez, administrazino honi holan egingo dala jakinarazo beharko jako.

Administrazinoarekiko auzi-errekurtsoa ipinteko epea hilebete bikoa izango da, erabagi honen jakinarazpena hartzen dan hurrengo egunetik hasita.

Guzti hori, 1956ko abenduaren 27ko Administrazinoarekiko Auzien Jurisdikzinoaren 58. artikuluaren eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.<br>Kodea:<br>07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024<br>NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08 | DOCUMENTO: 20241022695<br>Datea: 15/05/2024<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

**HIZTEGITXOA**

| | |
|---|---|
| **Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** | Recurso Contencioso-Administrativo |
| **Aireztatze-hodiak** | Conductos de ventilación |
| **Aireztatze-tximinia** | Chimenea de ventilación |
| **Arau subsidiarioak** | Normas subsidiarias |
| **Araudia** | Normativa |
| **Auzitegi Nagusiko Eskumenaren Sala** | Sala de la Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia |
| **Azpiegiturea** | Infraestructura |
| **Baldintzea** | Condición |
| **Bizigarritasun-zedulea** | Cédula de habitabilidad |
| **Epemugea** | Vencimiento |
| **Eraikina** | Edificio |
| **Erantzukizuna** | Responsabilidad |
| **Esan-multzoa** | Párrafo |
| **Eskegitokia** | Tendedero |
| **Harri-zolea** | Empedrado |
| **Ildo ofizialak** | Líneas oficiales |
| **Iraungi** | Caducar |
| **Jabeen erkidegoa** | Comunidad de propietarios |
| **Kitapena** | Liquidación |
| **Legegintzako Errege-Dekretua** | Real Decreto Legislativo |
| **Lerrokadurea** | Alineación |
| **Loiea** | Lonja |
| **Meategia** | Mina |
| **Objektu narriagarria** | Objeto que puede deteriorarse |
| **Obra-hondakindegia** | Escombrera |
| **Oholtzea** | Tablado |
| **Oina** | Planta |
| **Onuraduna** | Beneficiado |
| **Orubea** | Solar |
| **Oztopo arkitektonikoak** | Trabas arquitectónicas |
| **Salbuetsita** | Exento |
| **Sarbidea** | Acceso |
| **Trenkadea** | Mampara, tabique |
| **Urbidea** | Conducción de agua |
| **Urigintzea** | Urbanismo |
| **Zergea** | Impuesto |
| **Zigilua** | Sello |
| **Zuinketa Aktea** | Acta de Replanteo |

**6.- BERMEOKO MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUETAN EUSKARAZ IPINITAKO ERROTULUAK FINANTZATZEKO 2024. URTERAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA ETA ZABALTZEA.**

**Xedea**

Bermeoko Merkataritza establezimenduetan euskaraz ipinitako errotuluak finantzatzeko 2024. urterako dirulaguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea.

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2022ko abenduaren 19an, udal Osoko Bilkurak, Diru laguntzen Plan Estrategikoa eta Diru laguntzen Berariazko Oinarriak onartzea erabaki zuen. Erabaki horren iragarkia 2023ko martxoaren 6an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Berariazko Oinarri horien artean, Bermeoko Merkataritza establezimenduetan euskaraz ipinitako errotuluak finantzatzeko diru laguntzenak onartu ziren (I. eranskina). Bertan ageri dira dirulaguntza honi buruzko xehetasunak.

Bigarrena: Bermeoko Merkataritza establezimenduetan euskaraz ipinitako errotuluak finantzatzeko dirulaguntzak eskatzeko inprimakiak prestatuta daude, euskaraz eta elebiz (II. eta III. eranskinak).

**Argudioak**

Lehenengoa: Diru Laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlazionatutakoak.

Bigarrena: Lege bereko II. Xedapen gehigarriaren arabera, eskumena alkateak dauka, baina eskumen hori 2024ko apirilaren 24ko 1886 zenbakidun Alkatetza Dekretuz zinegotzi delegatuak dauka eskuordetuta.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Bermeoko Merkataritza establezimenduetan euskaraz ipinitako errotuluak finantzatzeko 2024. urterako dirulaguntzen deialdia eta eskaera-orria onartzea eta zabaltzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2020ko uztailaren 8an argitaratutako oinarrien arabera.

BIGARRENA: Deialdi honen publizitatea BDNS datu basean argitaratzea.

HIRUGARRENA: Bermeoko Udalaren webgunean deialdi hau argitaratzea.

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

# I. ERANSKINA

## 6.1.1. MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUETAN ERROTULUAK EUSKARAZ IPINTZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ZEHATZAK

**ESPARRUA: EUSKARA**

**IN-E 180/05-21**

**UDAL SAILA: EUSKARA**

**INSTRUKTOREA:** Euskara teknikaria

**BALORAZIO BATZORDEA:** Konparaziozko balioespenik ez denez egingo, ez dagokio.

**DIRULAGUNTZA EBATZIKODUEN ORGANOA:** Tokiko Gobernu Batzarra

**EBAZPENA JAKINARAZTEKO EPEA:** Ebazteko eta jakinarazteko sei hileko epea egongo da, eskaera aurkezten denetik zenbatzen hasita.

**DIRULAGUNTZAREN LERROA:** Merkataritza establezimenduetan euskararen presentzia sustatzea.

**KODEA:** 2024/IDA_ERA_0054

**AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU KOPURUA:** Aurrekontuan aurreikusten dena urtero.

**HELBURUAK:**

- Merkataritza eta enpresa arloan euskara erabiltzea sustatzea
- Establezimenduetako identifikazio-ikurrak euskaraz jardaitezen laguntzea, udalerriko hizkuntza paisaia euskaraz egon dadin

**EPEAK:**

- Eskariak aurkezteko epea: Oinarriak BAOan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita abenduaren 15era arte.
- Jasotako eskariak heldu ahala ebatziko dira.

**BALORAZIO IRIZPIDE ZEHATZAK:**

- Errotulua euskaraz idatzita egotea.
- Errotuluaren testua zuzen idatzita egotea. Hala ez balitz, zuzentzeko aukera izango du eskatzaileak, eta frogagiria aurkeztu ondoren, dirulaguntza jasotzeko modua izango du.
- Hala badagokio, hirigintzako lizentzia eskatuta izatea.
- Elementu bat baino gehiago ipini gura badira, bakoitzari dagozkion agiriak aurkeztea.
- Bermeoko Udalarekin zorrik ez izatea.

Establezimenduak errotulua lehenengo aldiz euskaraz jartzea.

**HIZKUNTZA IRIZPIDEAK:** Diruz lagunduko diren entitateen eta udalaren arteko ahozko eta idatzizko harremanak, ahal den kasu guztietan, euskaraz bideratuko dira.

**ESKATZAILEAK:** Bermeon kokatuta dauden merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-enpresa txikietako titularrek eskatu ahal izango dute dirulaguntza.

**DIRUZ LAGUNDUKO DIREN KONTZEPTUAK:**

<u>Lagunduko diren elementuak</u>:

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI · IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Establezimenduetako kanpoko errotulua

Autoetako errotulazioa

Toldoetako errotulazioa

Binilozko errotuluak

Diruz lagunduko ez direnak:

Finantza erakunde, hipermerkatu eta establezimendu-kate handietako errotuluak.

Establezimenduaren izena euskara ez den beste hizkuntza batean badago.

Izen propioak (izen ponte, abizen, toponimo… ) bakarrik adierazten dituzten errotuluak.

Errotuluaren gastua bakarrik lagunduko da; ez da lagunduko errotulua ipintzearen kostua.

Establezimendu berean, lehenengo aldiz jartzen ez diren euskarazko errotuluak.

Establezimenduetan euskaraz jarriko diren errotuluen %75eko kostua, gehienez 300€.

**PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:**

Dirulaguntza emateko prozedura: konkurrentzia lehiakorra izango da, baina konparaziozko balioespenik egin barik.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da beste edozein dirulaguntzarekin. Dirulaguntza horiek beste administrazio batek, zein entitatek emandako dirulaguntzak izan daitezke, beti ere, guztiak batuta diruz lagundu daitekeen kostuaren %100 baino gehiagokoa ez bada. Gain-finantzaketarik balego, diruz lagundutako kostuaren mugaraino murriztuko litzateke dirulaguntza.

Baldintzak betetzen dituzten eskariak Tokiko Gobernu Batzarrak onetsiko ditu, errotulua ipinita dagoela frogatzeko argazkia aurkeztu eta gero.

Deialdi honetan aurreikusi ez direnak instruktoreak eta zinegotzi delegatuak aztertu etaebatziko dituzte, dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legeari jarraiki.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Merkataritza establezimenduetan errotuluak euskaraz ipintzeko dirulaguntza eskatzeko orria beteta

- Errotuluaren zirriborroa, aurreikusitako testuarekin (errotulua jarri aurretik)

- Jatorrizko faktura (bananduta, alde batetik, errotuluaren kostua, eta bestetik, errotulazio hori jartzeari dagokion zenbatekoa). Faktura hori ordainduta dagoela adierazi beharko da.

- Ipinitako errotuluaren argazkia.

**AURREIKUSITAKOKOSTUAK:** Aurrekontuan aurreikusten dena urtero.

**JARRAIPEN ETA EBALUAKETARAKO ADIERAZLEAK**

- Udalerrien zabaldu diren jardueretatik errotuluak euskeraz jartzearen kopurua.
- Egindako eskaeretatik emandako dirulaguntza kopurua.
- Urtean zehar diruz lagundutako errotulu kopurua.
- Dirulaguntzaren ordainketa data interesdunei.

**AGIRIAK**: errotuluak euskaraz ipintzeko dirulaguntza, eskaera-orria.

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

**GENERO ERAGINA:** batere ez.

**1/1982 LOAREN ARABERA ARGITAGARRIA EZ DE EMAKIDA BAI/EZ**

Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzkoa.

## II. ERANSKINA

***ERROTULUAK EUSKERAZ IPINTEKO DIRULAGUNTZA ESKAERA-ORRIA***

IN-E 79/13-23

**ESKATZAILEAREN DATUAK**
**Izen-abizenak:** ..........................................................................................................................
**E(H)NA/NAN:** ................................................... **Tel.**: .......................................................................
**Helbidea:** ..........................................................................................................................
**PK:** .................................................................. **Herria:** .................................................................
**Faxa**: .............................................................. **E-posta**: ..............................................................
**Jakinarazpena** ☒ **Paperean** ☒ **Egoitza elektronikoan**

**ORDEZKARIAREN DATUAK**
**Izen-abizenak:** ..........................................................................................................................
**E(H)NA/NAN:** ................................................... **Tel.**: .......................................................................
**Helbidea:** ..........................................................................................................................
**PK:** .................................................................. **Herria:** .................................................................
**Faxa**: .............................................................. **E-posta**: ..............................................................
*Nahitaezkoa izango da, jagokon ahalordea, ziurtagiria edo IN-108 inprimakia behar bezala beteta eranstea inprimaki honi.

JARDUEREAREN DATUAK
Jarduerearen izena: ..........................................................................................................................
Helbidea: ..........................................................................................................................

ERROTULUAREN KOKALEKUA
- □ ESTABLEZIMENTUAN (zein tokitan): ..........................................................................................
- □ IBILGAILUAN (matrikulea): ..........................................................................................
- □ BESTERIK (zehaztu non):..........................................................................................

ERROTULUA IPINI AURRETIK AURKEZTU BEHARREKOA
- ☼ ERROTULUAREN TESTUA: ..........................................................................................
- ☼ Errotuluaren zirriborroa

Euskera Sailak 10 eguneko epean jakinaraziko deutso eskatzaileari proposatutako testua ontzat emoten dauen ala zuzenketea behar dauen.

**ERROTULUA IPINI OSTEAN AURKEZTU BEHARREKOA**
- ☼ Ipinitako errotuluaren argazkia, Euskera Sailean ontzat emondako moduan ipini dala egiaztatzeko
- ☼ Fakturea
- ☼ Ordaindu izanaren frogagiria
- ☼ Dirulaguntzea hartzeko kontu zenbakia (IBAN kodea eta 20 digituak): ..............................................

**ADIERAZTEN DOT:**

☼ Ez daukadala udalagaz ezelako zorrik.

Bermeon, 20…….(e)ko …………………….aren …..….(e)(a)n

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Eskatzailearen izenpea

BERMEOKO UDALEKO ALKATE-UDALBURUA
🖂 Jakinarazpena gazteleraz jaso nahi dot. Ezer adierazi ezean, Udalak erantzuna euskeraz emongo deutsu.

## III. ERANSKINA

### ERROTULUAK EUSKERAZ IPINTEKO DIRULAGUNTZA ESKAERA-ORRIA

### SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA LA INSTALACIÓN DE RÓTULOS EN EUSKERA

IN-E 79/13-23

**ESKATZAILEAREN DATUAK** / DATOS DEL/DE LA SOLICITANTE

**Izen-abizenak** / Nombre y apellidos: ....................................................................................................................................

**E(H)NA/NAN** / DNI: ......................................................... **Tel.**: ......................................................................................

**Helbidea** / Dirección: ....................................................................................................................................

**PK** / C.P.: ........................................................................... **Herria** / Municipio: ................................................................

**Faxa**: ................................................................................ **E-posta**: ................................................................................

**Jakinarazpena** / Notificación ☐ **Paperean** / En papel ☐ **Egoitza elektronikoan** / En sede electrónica

**ORDEZKARIAREN DATUAK** / DATOS DEL/DE LA REPRESENTANTE

**Izen-abizenak** / Nombre y apellidos: ....................................................................................................................................

**E(H)NA/NAN** / DNI: ................................................. **Tel.**: ......................................................................................

**Helbidea** / Dirección: ....................................................................................................................................

**PK** / C.P.: ........................................................................... **Herria** / Municipio: ................................................................

**Faxa**: ................................................................................ **E-posta**: ................................................................................

*Nahitaezkoa izango da, jagokon ahalordea, ziurtagiria edo IN-108 inprimakia behar bezala beteta eranstea inprimaki honi. / Será obligatorio adjuntar el poder correspondiente, certificado o impreso IN-108 debidamente cumplimentado a este formulario.

**JARDUEREAREN DATUAK** / DATOS DE LA ACTIVIDAD

Jarduerearen izena / Nombre de la actividad: ....................................................................................................................

Helbidea / Dirección: ....................................................................................................................................

**ERROTULUAREN KOKALEKUA** / UBICACIÓN DEL RÓTULO

- ☐ ESTABLEZIMENTUAN (zein tokitan) / En el establecimiento (en qué lugar): ............................................................
- ☐ IBILGAILUAN (matrikulea) / En el vehículo (matrícula): ...........................................................................
- ☐ BESTERIK (zehaztu non) / En otra ubicación (indicar dónde): ...................................................................

**ERROTULUA IPINI AURRETIK AURKEZTU BEHARREKOA** / PRESENTAR ANTES DE LA COLOCACIÓN DEL RÓTULO

- ☑ ERROTULUAREN TESTUA / Texto del rótulo: ..........................................................................................................
- ☑ Errotuluaren zirriborroa / Borrador

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI · IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Euskera Sailak 10 eguneko epean jakinaraziko deutso eskatzaileari proposatutako testua ontzat emoten dauenala zuzenketea behar dauen.

Euskera Saila comunicará a la persona peticionaria en un plazo de 10 días si da por bueno el texto o precisa corrección.

**ERROTULUA IPINI OSTEAN AURKEZTU BEHARREKOA** / A PRESENTAR TRAS LA COLOCACIÓN DEL RÓTULO

☑ Ipinitako errotuluaren argazkia, Euskera Sailean ontzat emondako moduan ipini dala egiaztatzeko / Fotografíadel rótulo colocado, para comprobar que responde al texto indicado por Euskera Saila

☑ Fakturea / Factura

☑ Ordaindu izanaren frogagiria / Comprobante del pago

☑ Dirulaguntzea hartzeko kontu zenbakia (IBAN kodea eta 20 digituak) / Nº de cuenta para el ingreso de la ayuda(IBAN y 20 dígitos): ........................................................................................................................................................

**ADIERAZTEN DOT** / DECLARO:

☑ Ez daukadala udalagaz ezelako zorrik / Que no tengo ninguna deuda con el Ayuntamiento.

**Bermeon, 20…….(e)ko …………………..…….aren .......(e)(a)n**

En Bermeo,

Eskatzailearen izenpea / Firma del/de la solicitante

BERMEOKO UDALEKO ALKATE-UDALBURUA / ALCALDE-PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE BERMEO

☐ Jakinarazpena gazteleraz jaso nahi dot. Ezer adierazi ezean, Udalak erantzuna euskeraz emongo deutsu.

Quiero que se me notifique en castellano. Si no se indica nada, la respuesta del Ayuntamiento se remitirá en euskera.

Datuak Babesteko 3/2018ko Lege Organikoa (DBLO) eta 2016/679 Datuak Babesteko Erregelamendu Europarrari dagokion informazioa (DBEO). Arduraduna: Bermeoko Udala, antolakuntza@bermeo.eus Xedea: sarreren eta urteeren erregistroaren kontrola, eta goian jasotako eskaerearen tramitazinoa. Legitimazinoa: botere publikoen jardunak agindutako egitekoa betetea. Hartzaileak: ez jake daturik emongo hirugarrenei, legezko betebeharra izan ezean. Eskubideak: datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko, tratamendua mugatzeko eta datuen aurka egiteko eskubideak Informazio gehigarria: udalaren webgunean: http://www.bermeo.eus/datuenbabesa.html

Información correspondiente a la Ley Orgánica 3/2018 de Protección de Datos (LOPD) y el Reglamento 679/2016 del Parlamento Europeo de Protección de Datos (RPEPD). Responsable: Bermeoko Udala, antolakuntza@bermeo.eus. Objeto: gestión de registro y tramitación de la solicitud indicada. Legitimación: cumplimiento de la misión encomendada por la actuación de los poderes públicos. Destinatarios/as: no se facilitarán datos a terceras personas, excepto que exista obligación legal. Derechos: derechos de acceso, rectificación, cancelación, limitación del tratamiento y oposición al tratamiento, según informaciónadicional; Información adicional: en la página web municipal: http://www.bermeo.eus/datuenbabesa.html

## ARGIBIDEAK / INSTRUCCIONES

Onuradunak / Personas beneficiarias:

Dendetako, tabernetako, negozio txikietako eta beste edozein jardueratako errotulazinoa euskeraz ipini gura daben jardueretako titularrak / Las personas titulares de actividades comerciales, de hostelería o pequeños negocios que deseen rotular en euskera.

Laguntzen diran elementuak / Elementos subvencionables:

- Kanpoko errotulua / Rótulo exterior
- Autoetako errotulazinoa / Rotulación en vehículo
- Toldoetako errotulazinoa / Rotulación en toldo
- Binilozko errolutuak / Rotulación en vinilo
- Urigintzako lizentzia behar dabenek tasaren %75eko hobaria izango dabe / Los rótulos que precisen de licencia urbanística tendrán una bonificación del 75% de la tasa.

Laguntzea hartzeko baldintzak / Requisitos para recibir la ayuda:

- Establezimentuaren izena euskeraz izatea edo euskal idazkeraz idatzita egotea / Que el nombre del establecimiento sea en euskera o esté escrito en euskera.
- Establezimentuaren izena berezia bada (ponte izena, abizena, toponimoa…), bera bakarrik ez adieraztea errotuluan. Kasu horretan, establezimentuari erreferentzia egingo deutson izen arrunt bat be agertu beharko da / En caso de que el nombre del establecimiento sea un nombre propio (de pila, apellido, topónimo…), deberá figurar también un nombre común que haga referencia al establecimiento.
- Testua zuzen idatzita egotea. Holan ez bada, zuzentzeko aukerea izango da / El texto debe estar escrito correctamente. Si no es así, se podrá corregir.

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Dirulaguntzearen zenbatekoa / Importe de la subvención:

- Errotuluaren %75eko kostua (BEZa kanpo), gehienez 300€ / El 75% del coste del rótulo (IVA no incluido), máximo 300€.

Eskaera-orria zelan eta noiz aurkeztu / Presentación de documentación:

Aurkeztu beharrekoak / Documentos a presentar

- Eskaera-orria beteta / Impreso de solicitud
- Errotuluaren zirriborroa / Borrador del rótulo
- Fakturea (bananduta alde batetik, errotuluaren kostua, eta bestetik errotulazino hori jarteari jagokon kostua) / Factura (indicando, por un lado el coste del rótulo y, por otro, el coste de la colocación del rótulo)
- Fakturea ordaindu izanaren frogagiria / Justificante del pago de la factura
- Kontu korrontearen zenbakia / Número de cuenta corriente
- Errotulua ipinita dagoan frogatzeko agiria / Documento acreditativo de la colocación del rótulo

Aurkezteko epea / Plazo de presentación:

Urte bakoitzeko abenduaren 15era arte / Hasta el 15 de diciembre de cada año.

Aurkezteko tokia / Lugar de presentación:

Egoitza elektronikoa / Sede electrónica: www.bermeo.eus

Argibide gehiago / Más información:

Euskera Saila. Gizarte eta Kultura Etxea, 2. solairua (2ª planta)

Tel.: 94 617 91 22

euskera@bermeo.eus

CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024

CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695

Datea: 15/05/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

**7.- GAZTELUGATXE ALKARTEARI 2024. URTEKO DIRULAGUNTZA IZENDUNA BIDERATZEKO HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.**

**Xedea**

2024. urterako udal Aurrekontuan aurreikusita dagoen dirulaguntza nominatiboa bideratzeko, Gaztelugatxe alkarteagaz hitzarmena sinatzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2024. urterako udal Aurrekontuan, Gaztelugatxe alkartearen aldeko dirulaguntza nominatiboa aurreikusten da eta, ondorioz, dirulaguntza bideratzeko hitzarmena prestatu da.

Bigarrena: 2024ko martxoaren 19an eta 20an, Idazkaritza Saileko teknikariak hitzarmenaren Justifikatze Memoria eta txosten juridikoa emon dauz hurrenez hurren.

Hirugarrena: 2024ko apirilaren 5ean, udal kontu hartzaileak kontrako fiskalizazino txostena emon eban.

Laugarrena: Gaztelugatxe alkarteak, kontu hartzailearen txostenaren ondorioz eskatutako Ogasun eta Gizarte Segurantzagaz zorrak ez izatearen agiriak aurkeztu dauz.

**Argudioak**

Lehenengoa: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauzen 7/1985 Legearen 5. artikulua, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen dauen 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazinoen Prozedura Adminitratibo Orokorra onartzen dauen 39/2015 Legearen 86. artikulua, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 28.1 artikulua, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 6. artikulua eta Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen dauen 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengokoetan xedatutakoak hartu dira kontutan.

Bigarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri legearen 21.1. artikuluaren f) eta s) atalen arabera, alkateari jagoko, baina 2024ko apirilaren 24ko 1.886 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazinoen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:



CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

LEHENENGOA: 2024. urterako udal Aurrekontuan jasotzen dan Gaztelugatxe alkartearen aldeko dirulaguntza nominatiboa bideratu ahal izateko, hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, Ekonomia Sailari eta Diruzaintzari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

**8.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.**

Alkatetza dekretuen berri eman da.

**9.- ESKARI ETA ITAUNAK.**

Ez da eskaerarik ezta itaunik egin.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

*Orri oinean sinatzaileak eta datak*



CSV: 07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F9AE700C1F0O0O1A8R9

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 15/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2024 10:47:08

DOCUMENTO: 20241022695
Datea: 15/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia